



M2: Auzolanez Errekaleor argitzen jarraituko Dugu #PiztuErrekaleor

ERREKALEOR BIZIRIK! :: 26/04/2015

Kaixo gazte!

Beste behin ere gure jardueraren berri ematera gatoz errekaletarrok! Azken asteetan asko izan dira gure auzoari buruz agertu diren berrriak, gehienbat argi mozketaren inguruan. Jasan genuen eraso horren aurrean proiektuarekin aurrera egiteko irmotasuna argi eta garbi adierazi dugu, baina bide luze honetan gazte oro gure proiektuarekin bat egitea da asmoa.

Zentzu honetan, gure auzo askeari bultzada eder bat emateko, auzolan erraldoia antolatzen ari gara datorren maiatzaren 2rako. Egun horren helburu nagusia Errekaleor auzoa ezagutzeko eta bertan parte hartzeko deialdia zabaltzea da, saretzearekin jarraitu eta partehartzean sakondu.

Auzolan egun honetarako lau lan ardatz finkatu ditugu: Errekaleorreko Gaztetxea izango den espazioari bizitza ematea, auzoko entsaio lokala prestatzen jarraitzea (bertan MusikGerrilako lagunak ari da lan ta lan), baratzaren landatzearekin jarraitzea eta auzoari kolorea ematea mural ezberdinak eginez.

Lana eta ondo pasatzea uztartu nahian, herri bazkariaren ostean, "altxorren bila" jolasa antolatuko dugu, auzoak izkutatzen dituen istorio ezberdinetaz baliatuz. Gau parterako Bidelapurrak taldeak kontzertua eskeiniko du eta ostean DJ Puck-ek doinu dantzagarriak eskeiniko dizkigu.

Hementxe lo egiteko aukera ere eskeiniko dugu, eta horretarako akanpalekua egongo da, zentro sozialeko instalakuntzetaz baliatuta (komunak, sukaldea...). Animatu kanpin denda ekartzera eta eguzkiaz zein ilargiaz goatzera!

Gure auzoa zein bertan burutzen ari garen alternatiba sozioekonomikoa ezagutarazteko aukera ederra delakoan, animatu okupazioan eta autogestioan oinarrituta dagoen proiektu honetan parte hartzen!

Edozein zalantza zein proposamenik edukiz gero, idatziguzue info@errekaleorbizirik.org helbidera.

#PiztuErrekaleor

ERREKALEOR, JO TA EMAN GOGOR!!!

https://www.lahaine.org/mm_ss_est_esp.php/m2-auzolanez-errekaleor-argitzen-jarraituko